

Juan San Martín

Euskaltzaina

Euskara

■ Orainsu zioen Arantzadi Natur Zientzia Elkarte buru den Jesus Altuna paleontologoak, euskara dela prehistoriatik datorkigun altxor bakarra. Uste dut ez duela arrazoi faltarik.

Oroi bestela zer esan zigun euskaldunoi Ramon Menendez Pidal jakitun harek, Eusko Ikaskuntzaren eskariz 1921. urtean Bilbon eman zuen hitzaldi hartan: «Antzinako hispaniaren erlikiarik agurgarriaren jabe zarete. Beste batzuk izan ditzake arte balio hoberik, gutziagarri eta miresgarriagorik, baina ez da besterik zuona bezalako garrantzia duen hizkuntzarik, zeren bere ikerketa sakondu gabe inoiz ere ezingo dira bere zehaztasunik gabe ezagutarazi antzinako zibilizazioaren ibilirik».

Iruditzen zait, gure hizkuntzan, natur izatearen baitan bezala, ezagutzen dena baino gehiago dela oraindik ezagutzen ez dena. Horregatik, bere zoria ezin dezakegu utzi politikari arin batzuren baitara.

Euskararen sustraiak, gutienez duela lau-bost mila urte Eneolitos garaitik harat jarri beharrezkoak ditugu, gizona abeltzaintzatik bizi zen garaikoan noski. Eta horren arabera, Pirineo mendien bi alderdiak zituen bizileku. Hargatik, R. Plande zenak hain ongi zioen: Pirineoa, askok uste duten muga naturala izatea baino urutiagorik ezer ez dela, zeren bertako bizi moldeak bi alderdiak elkartasunean lotzen zituzten (ikus R. Plande, *La formation politique de la frontière des Pyrénées*, Rev. *Géographie Pyrénéese*, t. IX, 221-243. orr. Toulouse, 1938). Bizitza bi urtearotan zatitua bai zen: ne-gua eta udara. Oroi nekazaritzak ekarri zuela lau urtarotan zatitza eta euskaraz lehenagoko bieri loturik datorkigula: udaberria eta udazkena edo udagoiena, deritzaiogun izenok.

Max Sorre-ren *Los Pirineos* (1949) liburuaren azkenaurreko kapituluak irakurtzen badugu, antzerako iritziak aurkituko ditugu. Gainera, herri elkartu bezala, Nafarroako erresuma hartan sendatu ginela. Ez dago zalantza jartzerik Pirineo gehienean, hemendik Katalunira arte, ugari direla euskarazko sustraiak dituzten toki-izenak. Mendi hoietan hainbeste ibili garen euskaldunontzat ezpairik gabea dela esan nezake. Baina, zerbait sakonago jakin nahi dutenek jo dezatela Joan Coromines-en *Etudis de Toponimia Catalana* (1965-1970) bilketa oparo eta ikerlan bikainera.

Idazteko grafia era latinetikakoa dugu, noski. Aurretikorik ez dugu ezagutzen, ulergarri ez diren irudiera edo marra batzuk baizik. Eta duela bi mila urte Pomponius Mela-k *Chorographia* zertan III. liburuak 15. partean aipatzen zuten: *vardulli* (Araba eta Gipuzkoa, dirudienez) herrialdeetan, ingurukoengandik berezirik, ibaiak beraien izen jatorrak zituztela hizkuntz adierazi ezinezko batean. Zer ulert dezakegu, euskarazkoak ezik? Zeren gure mintzairak baditu zenbait ahoskera haien latinak ez dituenak. Jarraian zioen, alde horietan, *vardulli*-k nazio bakarra osatzen zuela Pirineoetaraino.

Erromar Inperioa erortzean anitz herri agertu ziren kulturaz noraezean. Ilunaldi luze batean murgildu ziren Euro-

paren mendebaldeko herriak Erdi Aroa arte. Hala ere, etenaren ondoko lehen mendeetan inertziazko jarraipena ezagutu zuten, poliki-poliki itzaltzen joango zena. Hemen, uste dugu, mende askoren zehar adituen artean euskara-latin elebitasunak iraungo zuela. Inperio harek hizkuntzarik gehienak suntsitu zituen. Gureak ere bide hori eraman zezakean, baina hara hor zuzpertz eta indarberrituz gure herriak berreskuratu zuten.

Latinak eman zigun ahozko hizkuntza idatziz jartzeko aukera. III. mende

mendekua hartu zuen nonbait, eta oraindik ere hor datozkigu ausarti bere jarraitzaileak. Alajaina! Hainbeste hizkuntza mintzo den European, zer nolako Europa Batua osatu dezakegu horiekin?

On zaigu agiriak lekuko jartzea. Hara hemen Iruñeko apezpiku zen Petrus II.ak 1167. urtean Beila kondearekin Aralarko San Migel santutegiaren Armeriako aziendaz, jatorrizko ohitura zenaren arabera, hitzarmenez onartu zeneko agiriak zer zioen:

«*Erit autem talis differentia inter Orti*

Erdi Aroan nafarrek Orreagan Erroldan menperatu zuten eta hogeigarren mende bukaeran beste Erroldan batek bere gerra-zikinez eta lapurketaz mendekua hartu zuen nonbait

bukaera ingurutik VI.era arte, erromarren erako ohitura jarraitu zuten oroitarrak iragarkiz latinez jarriz eta euskaldunen izen eta jaikokioak hor agertu ziren lehen aldiz, latinaren grafiaz idatziak; bereziki Akitaniako eskualdeetan, Novenpopulania zeritzan Gaskoinan. Hauen eragina Aragoi eta Nafarroaraino iristen zen. Besteak beste, hor aurki genezake Nafarroako Lergan III. mendekotzat jotzen den oroitarrak edo lapida hura, non irakur daiteken: *Ume sahar*.

Gure artean, iragarki horien berri zehatzak, laburki bederen, eman zizkigun Koldo Mitxelena zenak *Textos arcáicos vascos* (1964) liburuaren 14-20. orrialdeetan. Ondotik, Salamancaren bere ikasle izan zuen Joakin Gorrotxategik zabalago landua du gai hori, *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania* (1984) deritzan liburuan.

Azken urte hauetan *Diario de Navarra*-k eztabadiarik asko sortu du *Lingua Navarrorum* dela eta. Batzuentzat nafa-

Lehoarri et Açeari Umea et successores eorum, quod Orti Lehoarri faciet ut lingua Navarrorum dicatur 'unamaizter' et Açeari Umea faciet 'buruçagu', quem voluerit. (Ikus Jose Goñi Gaztambide, *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona*, 1997, t.I, 305 dok., 269. or.).

Euskara ez ezik, latin ere irakatsi beharra ote dugu? Zeren, 1998an Euskal Herkidegoko Lege Biltzarreko hauteskudeetan politikarien aldetik astakeriarik aski entzun izan dugu. *Pluralismoa* aldarrikatzen dutenen alderdikoa den Bizkaiko emakume batek esan zuenez: euskara ikastea zaila omen eta gainera ez dela hizkuntz erabilgarria («*el euskera, es difícil de aprender y de muy poca utilidad práctica*», bere hitzetan). Ez da konturatzen edo ezin da konturatu, euskaldunok muga igarotzeaz bat anaikiro agertzen garela euskarari esker. Beraz, zalantzarik gabe, elebakardun horiek baino

Guziek jakin bezate: euskarak, Europako Batasunean ez dio inori argirik kentzen; alderantziz, euskara galduko balitz, bai ordea Europak bere jatorriak ilundu

roako erromantzea zela eta beste batzuentzat euskara. Nafarren historiaz hainbeste zekien Arturo Campionek ez zuen holako zalantzarik, baina ezer ez dakiten askok bai ordea. Horregatik baztertzuten dute euskara, bai eskubitarrek eta bai ezkertiarrek. Nork pentsa zezakeen bertako Lege Biltzarrean nafar sozialistek ere aurka jarriz ukatu behar zutenik? Erdi Aroan nafarrek Orreagan Erroldan menperatu zuten eta hogeigarren mende bukaeran beste Erroldan batek bere gerra-zikinez eta lapurketaz

Europarago gaude. Gainera, beraiek gaztelera hutsean bezala, euskaldunok euskara soilean jardungo bagina, Lege Biltzarrean ez luke izango modurik elkarren artean ezer ulertzeko.

Abertzaleek euskara politizatu dutela? Nork behartu zuen Espainiako eskola guzietan gaztelera soilik irakastea, Carlos III.ak bere *Real Cédula de 23 de junio de 1768* haren aginduz baizik? Agiri hori ez ote hizkuntzaren politizatzaile? Gaztelera guzian jaun eta jabe? Mintzaitzaile gehiago dituelako? Iritzi horren

arabera eta aurrera begira, zientzi eta tekniken etorkizuneko den inglesa zergatik ez? Baina hemen, gaur egun, gezurra badirudi ere elebakardunak pluralistak omen.

Agiriak erakusten digutenez, Austriar dinastiako erregeen jokaera bestelako izan zen, euskararentzat abegi hobea zuten, zeren Isastik *Compendio historial* haren 168. orrialdean zioenez, Karlos V.ak gogozko omen zuen euskara eta nafar mandazainarekin izan zuen elkarrizketa jaso zuen (Mitxelena *Textos arcáicos*-en 154. or. dakarrena, eta horrez gainera beste zerbait gehiago 106-107. orrialdeak.). Felipe IV.ak, bere aldetik, Juan de Isasi eibartarra hautatu zuen bere semeen *ayo* (irakasle), eta Elgoibarren 1635eko apirilean egin ziren Gizpuzkoako Batzar Nagusietan irakurri zen honen gutun bat, non zioen Baltasar Printzeari gogozko zitzaizela euskara: «*gusta su alteza a ratos que se le hable en bascuence y cuenta en nuestra lengua algunos números muy naturalmente*». Borboiarren dinastiakoek harrera horri ez zitoten jarraitu. Beraz, hortik atera kontuak hizkuntza nork politizatu zuen.

Lehenago, Errege Katolikoaren garaiko Gurutzadetan judu eta arabeen aurka aldarrikatzen zuten «*Hable en Cristiano*» esaldia, nork pentsa zezakeen arameoera ez dakitenez euskaldunoi ere erantsiko zigutela? Franco-ren diktadura marrikatu haren denboran hamaika aldiz entzun beharra izan genuen.

Baina euskarak, ahoz-ahoz noiztik datorkigun inork ez dakien herri literatura dugu, kondaira eta kantuz. Erdi Aroan sustraitzen diren pastoral antzerki motak, atsotitz edo erretrauak eta oraindik gaur egun hain ezagunak zaizkigun kantak ere hor ditugu. Eta XVI. mendetik argitaratu izan diren liburuak ere kontutan hartzeak dira.

J. Caro Barojak idatzi zuen *Algunos mitos españoles y otros ensayos* (1944) liburuak gehienak Euskal Herrikoen buruzko saiok dira, non aurki genitzakeen Europako zenbaiten kidetasuna, bereziki Ifarraldekoena. Bestalde, gogoa hartzeak ditugu R. M. Azkue eta J.M. Barandiaranen bilketazkoak. Gai hontaz, neronek Julene Azpeitiaren *Amandriaren altzoan* (1961) zertanari egin nion hitzurrean herri-ipuinei buruz esan nuena berretsi nezake: Herri-ipuina dira literaturaren aurrenengo kimuak, noski. Herri-ipuina izan direlako kulturadun hizkuntzen literatura oinarri. Sarri, ipuina aski dira herri baten sikologiaren bereizkuntza egiteko. Beren aberastasunetik neurtu ditzake herri-gogoa. Harrigarria da benetan, gure herriak ahozko literatura horren aberatsa izanik, idazkiz txirra izan beharra. Era guztietako ipuinen jabe gara, eta bertan ditugu lehenagoko sinesmen, kondaira eta ohituren argitasunak... Norberaren herria ezagutu ahal izateko, zer hoberik jatorrizko literatura baino?

Baina batez ere, guziek jakin bezate: euskarak, Europako Batasunean ez dio inori argirik kentzen; alderantziz, euskara galduko balitz, bai ordea Europak bere jatorriak ilundu. ■